Andoaingo Udala

HIRIGINTZA, OBRA, INGURUMEN ETA LANDAGUNEA

Kodea: 2025AKM80004

Baldintza Administratiboen Berezien Agiria

Pliego de Condiciones Administrativas Particulares

Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bategineko 40.- Olaburu-Lizarkola HEA eremuko lurzoruen esplorazio-ikerketa egingo duen erakunde kreditatu bat kontratatzea.

Contratación de una entidad acreditada que realice la investigación exploratoria de los suelos incluidos en el ámbito AIU 40.- Olaburu-Lizarkola del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain.

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Ireki erraztua** Abierto Simplificado	**Esp. kodea** Cód. Exp.	**2025AKM80004**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente		

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea
2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak
3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia
5.- Kontratuaren prezioa
6.- Kreditua izatea
7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua
8.- Prezio berrikuspena
9.- Kontratatzailearen profila
10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak
12.- Errekurtso araubidea

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

13.- Espediente mota eta lizitazio modua
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak
15.- Proposamenak aurkeztea
16.- Lizitatzaileei informazioa ematea
17.- Proposamenen edukia
18.- BAT zkdun. artxibo elektronikoa: "BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" (1 zk. artxiboa dagoenean)
19.- BI zkdun. artxibo elektronikoa: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATU BEHARREKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"
20.- Aldaerak onartzea
21.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak
22.- Kontratazio-mahaia
23.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea

CAPÍTULO I - DISPOSICIONES GENERALES

1.- Objeto del contrato
2.- Necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato
3.- Presupuesto base de licitación
4.- Valor estimado del contrato
5.- Precio del contrato
6.- Existencia de crédito
7.- Plazo y lugar de ejecución del servicio
8.- Revisión de precios
9.- Perfil de contratante
10.- Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, igualdad lingüística, protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales y protección de datos.
11.- Régimen jurídico del contrato y prerrogativas de la Administración
12.- Régimen de recursos

CAPÍTULO II - CONTRATACIÓN

13.- Clase de expediente y forma de licitación
14.- Personas naturales o jurídicas licitadoras
15.- Presentación de proposiciones
16.- Información a las licitadoras
17.- Contenido de las proposiciones
18.- Archivo electrónico nº UNO: "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR" (solo cuando exista el archivo nº UNO)
19.- Archivo electrónico nº DOS: "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS"
20.- Admisibilidad de variantes
21.- Efectos de la presentación de proposiciones
22.- Mesa de contratación

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae0241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

24.- Balio-judizioaren bidez kalifikatu daitezkeen esleipen irizpideen Balorazio txostena eta kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea, eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea.
25.- Esleipen irizpideak
26.- Eskaintzak baloratzea
27.- Eskaintzak argitzea
28.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak
29.- Prozedurako ondorengotza
30.- Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta esleipen prozeduran Administrazioak atzera egitea
31.- Esleipena
32.- Kontratua formalizatzea

III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA
33.- Kontratuaren arduraduna
34.- Kontratistaren ondorengotza
35.- Kontratua lagatzea
36.- Betetze baldintzak eta betebeharrak
37.- Obra proiektuak prestatzeko kontratuari buruzko berezitasunak
38.- Zerbitzu kontratuen berezitasunak, herritarrentzat zuzeneko prestazioak dakartzatenean

39.- Jabetza intelektualaren eskubideak
40.- Zehapenak: berandutzagatikoa eta beste batzuk
41.- Kontratuaren aldaketak
42.- Kontratistari egin beharreko ordainketak
43.- Kontratua etetea
44.- Harrera eta berme epea
45.- Kontratua suntsiaraztea

I. *eranskina.-* *Lizitazio elektronikorako jarraibideak*
I. eranskinaren gehigarria.- *Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko datuak*
II. eranskina.- *Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoaren eredua*
III. eranskina.- *Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta erakundearen zuzentasun esparrua betetzeari buruzko adierazpen eredua*
IV. eranskina.- *Abal eredua*
V. eranskina.- *Eskaintza ekonomikorako eta formula bidez ebaluatzeko eskaintzako beste elementuetarako eredua, erantzukizunpeko adierazpena duena.*
VI. eranskina*.- Erantzukizunpeko adierazpena*

23.- Apertura y examen de las proposiciones
24.- Publicidad del informe de valoración de los criterios de adjudicación calificables mediante juicio de valor y del resultado de los actos de la mesa de contratación y notificación a las licitadoras afectadas
25.- Criterios de adjudicación
26.- Valoración de las ofertas
27.- Aclaración de ofertas
28.- Ofertas con valores anormalmente bajos
29.- Sucesión en el procedimiento
30.- Decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y desistimiento del procedimiento de adjudicación por la Administración
31.- Adjudicación
32.- Formalización del contrato

CAPÍTULO III - EJECUCIÓN DEL CONTRATO8
33.- Responsable del contrato
34.- Sucesión en la persona de la contratista
35.- Cesión del contrato
36.- Condiciones de ejecución
37.- Especialidades en relación al contrato de elaboración de proyectos de obras
38.- Especialidades en relación a los contratos de servicios que conlleven prestaciones directas a favor de la ciudadanía
39.- Derechos de la propiedad intelectual
40.- Penalidades: por demora y otras penalidades
41.- Modificaciones del contrato
42.- Abonos al contratista
43.- Suspensión del contrato
44.- Recepción y plazo de garantía
45.- Resolución del contrato

Anexo I.- *Instrucciones para la licitación electrónica*
Adenda al Anexo I.- *Datos a efectos de recibir notificaciones y comunicaciones*
Anexo II.- *Modelo de compromiso de constitución en unión temporal de empresas*
Anexo III. – *Modelo de declaración del cumplimiento del código de conducta y marco de integridad institucional aplicable a la contratación pública*
Anexo IV.- *Modelo de aval*
Anexo V.- *Modelo De oferta económica y de los otros elementos de la oferta evaluables mediante fórmulas, con declaración responsable*

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

VII. eranskina.- *Kontratatutako zerbitzura atxikitako langileek hizkuntza-eskakizuna betetzen dutela egiaztatzeko udalari emandako baimena*

VIII. eranskina.- *Hizkuntza-klausulen betetze maila*

Anexo VI.- *Declaración de responsabilidad*

Anexo VII.- *Consentimiento del personal adscrito al servicio contratado autorizando al ayuntamiento para la consulta de su perfil de euskera*

Anexo VIII.- *Nivel de cumplimiento de las cláusula lingüísticas*

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae0241

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea

1.- Kontratuaren xedea karatulako **3. atalean** deskribatutako zerbitzua da, betiere ezaugarri teknikoei buruzko baldintza-agirian ezarritako baldintzekin bat. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) Bigarren Liburuko I. tituluan aurreikusten dituen balizkoetan tramita daitezen aldaketak.

Atal horretan horrela ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aintzat hartuz, SPKLren 99. artikuluak dioenarekin bat.

2.- Kontratuen Hiztegi Komuneko (**KHK**) nomenklaturari dagokion kodifikazioa karatulako **3. atalean** dago jasota.

2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak

Kontratu honekin baldintza teknikoen agirian deskribatuta dauden premia edo beharrak beteko dira, bertan deskribatzen diren zerbitzuen bitartez.

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

1.- Karatulako **4. atalean** balio erantsiaren gaineko zerga barne harturik maximotzat adierazten dena da kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.

2.- SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, karatulako **4. atalean** adierazten da kalkulurako erabilitako sistema.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta karatulako **5. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion esleipen-prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun-baldintzak eta aplikatzeko errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio zenbatetsi horretan, kontuan izango dira, horrela aurreikusten den kasuetan, karatulako **9. eta 21. ataletan** jasotzen diren aldaketak, luzapenak eta aukerak.

CAPÍTULO I - DISPOSICIONES GENERALES

1.- Objeto del contrato

1.- Constituye el objeto del contrato el servicio descrito en el **apartado 3** de la carátula, de acuerdo con las condiciones establecidas en el pliego de prescripciones técnicas y, en su caso, con los modificados que puedan tramitarse en los supuestos previstos en el Título I del Libro Segundo de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (LCSP).

Cuando así se establezca en dicho apartado se licitará por lotes, siguiendo los términos y límites que se describen en el mismo, conforme al artículo 99 de la LCSP.

2.- La codificación correspondiente a la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (**CPV**) figura en el **apartado 3** de la carátula.

2.- Necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato

Con este contrato se satisfarán las necesidades que se describen en el pliego de prescripciones técnicas, mediante los servicios descritos en el mismo.

3.- Presupuesto base de licitación

1.- El importe del presupuesto base de licitación del contrato es el señalado como máximo en el **apartado 4** de la carátula, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

2.- A los efectos de lo previsto en el artículo 100.2 de la LCSP, se indica en **el apartado 4** de la carátula el sistema de cálculo.

4.- Valor estimado del contrato

1.- El valor estimado del contrato, calculado conforme al artículo 101 de la LCSP y recogido en el **apartado 5** de la carátula, ha sido tenido en cuenta para elegir, tanto el procedimiento de adjudicación aplicable a este contrato y la publicidad a la que va a someterse, como para establecer las condiciones de aptitud de las personas físicas y jurídicas licitadoras (en adelante las licitadoras) y el régimen de recursos aplicable. Dicho valor estimado incluirá, en el supuesto de que así se prevean, cualquier forma de opción eventual, las eventuales prórrogas y posibles modificaciones contractuales señaladas en los

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, karatulako **5. atalean** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.

5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da, eta balio erantsiaren gaineko zerga partida independente gisa jaso beharko da. Kontratuaren prezioan sartutzat joko dira aplikatu beharreko edozein motatako tributu, tasa eta kanonak, bai eta baldintza-agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak esleipendunari dakarzkion gastu guztiak ere.

2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, karatulako **4. atalean** adierazten da kontratuaren prezioa zehazteko erabili den sistema.

3.- Prezioaren zehaztapena oroharreko prezioan egiten den kontratuetan, kontratuaren prezioa enpresa esleipendunak eskainiko du kontratuaren prezioa eta hura inoiz ez da lizitazio aurrekontutik gorakoa izango.

4.- Prezioaren zehaztapena prestazioko osagai edo unitateen prezio unitarioen bitartez egiten den kontratuetan:

a).- Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen denean, esleipendunak eskainitako prezio unitarioa unitate kopuruaz biderkaturik ateratzen den emaitza izango da prezioa.

b).- Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen ez denean:

- Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainia izango da.
- Kontratuaren gehienezko mugako aurrekontua finkatuko da, nahiz aurrekontu horretako gastu efektiboa Administrazioaren behar errealek baldintzatuta egongo den; izan ere, Administrazioak ez du obligaziorik izango ez unitate kopuru jakin bat eskatzeko, ezta aurrekontua osorik gastatzeko ere.

5.- Karatulako **4. atalean** horrela adieraziz gero, eskaintza ekonomikoak onartuko dira, prezio partzialak emanda horietan lizitazioko oinarrizko aurrekontuan jasotzen diren prezio unitario partzialekiko igoera portzentaje batez; dena den, ateratzen den gehienezko prezioak ezingo du, inoiz, oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa gainditu.

6.- Kreditua izatea

1.- Behar adinako kreditu egokia dago, kontratua

apartados 9 y 21 respectivamente de la carátula.

2.- A los efectos de lo previsto en el artículo 101.5 de la LCSP, en el **apartado 5** de la carátula se indica el método utilizado para la determinación del valor estimado del contrato.

5.- Precio del contrato

1.- El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y deberá indicar como partida independiente el IVA. En el precio del contrato se considerarán incluidos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos que se originen para la adjudicataria como consecuencia del cumplimiento de las obligaciones contempladas en el presente pliego.

2.- A efectos de lo previsto en el artículo 102.4 de la LCSP, en el **apartado 4** de la carátula se indica el sistema utilizado para la determinación del precio.

3.- En los contratos en los que la determinación del precio se efectúe a través de tanto alzado el precio del contrato será el ofertado por la empresa adjudicataria que en ningún caso podrá superar el presupuesto base de licitación.

4.- En los contratos en que la determinación del precio se efectúe a través de precios unitarios correspondientes a los distintos componentes o unidades de prestación:

a).- Cuando el número de unidades que integran el objeto se defina con exactitud: el precio será el resultado de multiplicar el precio unitario oferta-do por el adjudicatario por el número de unidades.

b).- Cuando el número de unidades que integran el objeto no se defina con exactitud:

- El precio de cada unidad será el ofertado por el adjudicatario.
- Se establecerá el presupuesto máximo limitativo del contrato, si bien el gasto efectivo de este presupuesto está condicionado por las necesidades reales de la Administración, que no queda obligada a demandar un determinado número de unidades, ni a gastarlo en su totalidad.

5.- Si así se indica en el **apartado 4** de la carátula, se admitirán ofertas económicas que incluyan precios unitarios parciales con un porcentaje de incremento respecto a los que figuran en el presupuesto base de licitación, si bien en ningún caso el precio máximo resultante podrá superar el importe del presupuesto base.

6.- Existencia de crédito

1.- Existe crédito adecuado y suficiente para hacer frente al

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

gauzatzeko kalkulatutako gehieneko gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, karatulako **7. atalean** ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat.

2.- Karatularen hasieran aurreikusiarekin bat, eta SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusitakoa kontuan izanik, espedientea aurrez tramitatzen bada, kontratuaren esleipenak etendura-baldintza bat izango du −zehazki behar beste kreditu egokia izatea−, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako obligazioak beteko direla bermatu ahal izateko.

gasto máximo estimado del contrato a realizar. El contrato se financiará con cargo a la/s partida/s presupuestaria/s y conforme a la/s anualidad/es que se establecen en el **apartado 7** de la carátula.

2.- Si de acuerdo con lo previsto al inicio de la carátula, a tenor de lo previsto en el artículo 117.2 de la LCSP, el expediente se tramita anticipadamente, la adjudicación del contrato queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para garantizar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio correspondiente.

7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua

1.- Zerbitzua betetzeko epea karatulako **8. atalean** ageri dena da, edo, bestela, enpresa esleipendunak eskaintzen duena, eskaintzaileek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa dezaketen kasuan.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta karatulako **9. atalean** horrela jasota badago. Luzapena derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat SPKLren 29. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Zerbitzuak toki jakin batean eman behar badira, karatulako **12. atalean** hala adieraziko da.

7.- Plazo y lugar de ejecución del servicio

1.- El plazo de ejecución será el que figura en el **apartado 8** de la carátula, o el que oferte la empresa adjudicataria, en el supuesto de que las licitadoras puedan proponer reducción del plazo total y/o de los plazos parciales.

2.- El contrato podrá ser prorrogado si así se prevé en el **apartado 9** de la carátula, siendo la prórroga obligatoria para la contratista en los términos previstos en el artículo 29 de la LCSP.

3.- En caso de que los servicios deban desarrollarse en un lugar determinado, se indicará en el **apartado 12** de la carátula**.**

8.- Prezioen berrikuspena

1.- Berrikuspena aurreikusiko balitz, horrela adieraziko da karatulako **15. atalean**, non aplikatu beharreko formula jasoko baita.

2.- Prezio berrikuspena SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzetan egingo da.

8.- Revisión de precios

1.- Si procediera la revisión, se indicará en el **apartado 15** de la carátula, que recogerá la fórmula aplicable.

2.- La revisión de precios tendrá lugar en los términos establecidos en la LCSP (artículos 103 y siguientes).

9.- Kontratatzailearen profila

1.- .- Kontratu honi buruz kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko den informazioa http://www.andoain.eus/eu/kontratatzaile-profila helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

9.- Perfil de contratante

La información relativa al presente contrato podrá ser consultada en la dirección electrónica que se indica: http://www.andoain.eus/es/kontratatzaile-profila.

10.- Zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza-berdintasun, enpleguaren babes, lan-baldintza eta laneko arriskuen prebentzio eta datu babesaren arloko informazioa

SPKLaren 129. artikuluarekin bat jakinarazten da organismo hauetan lortu ahal izango dela honelako gaiei buruz indarrean dauden obligazio eta xedapenei buruzko informazioa:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta

10.- Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, igualdad lingüística, protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales y protección de datos.

De acuerdo con el artículo 129 LCSP, se informa de que en los siguientes organismos se puede obtener información de las obligaciones y disposiciones vigentes en relación con:

- Fiscalidad: Departamento de Hacienda y Finanzas de la

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Finantza Departamentua, eta gainerako zerga administrazioetan (www.gipuzkoa.eus)
- Enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaituak gizartean eta lan munduan txertatzea: Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza (http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/trabajo-seguridad-social/inicio/)
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakunde organismo autonomoa (http://www.emakunde.euskadi.eus)
- Hizkuntza berdintasuna: Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza (http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus)
- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa (http://www.ihobe.eus)
- Datu pertsonalak babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia (http://www.avpd.euskadi.eus)

Diputación Foral de Gipuzkoa y en el resto de Administraciones Tributarias. (www.gipuzkoa.eus)
- Protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de personas con discapacidad: Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco. (http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/trabajo-seguridad-social/inicio/)
- Igualdad de mujeres y hombres: Organismo Autónomo EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer. (http://www.emakunde.euskadi.eus)
- Igualdad lingüística: Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco. (http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus)
- Protección del medio ambiente: Sociedad pública IHOBE. (http://www.ihobe.eus)
- Protección de datos de carácter personal: Agencia Vasca de Protección de Datos. (http://www.avpd.euskadi.eus)

11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak

1.- Kontratu honek izaera administratiboa du, SPKLren 25. artikuluaren arabera. Aldeek berariaz bete behar dituzte honako arau hauek: Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL) eta, horren aurka ez dagoen neurrian, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) eta Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duten beste edozein xedapen aplikagarri eta, kasu guztietan,, plegu honetan eta kontratuak xede dituen baldintza teknikoen agirian jasotzen diren baldintzak eta klausulak. Osagarri gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauei jarraituko zaie.

2.- Baldintza-agiri honen eta kontratuko beste dokumentuetako edozeinen artean desadostasunik izanez gero, baldintza-agiri hau nagusituko da.

3.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta gauza hitzartua betetzeko unean aplikagarriak diren jarraibide edo arauak edo horien alderdiren bat ez ezagutzeak ez du esleipenduna salbuesten horiek guztiak betetzetik.

4.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusiarekin bat, kontratazio-organoak du kontratu administratiboak interpretatzeko eta hauek betetzeko unean sortzen diren zalantzak erabakitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratuak alde bakarretik aldatu ahal izango ditu, eta horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKLk eta berau garatzeko xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta baldintzetan eta aipatzen

11.- Régimen jurídico del contrato y prerrogativas de la Administración

1.- Este contrato tiene carácter administrativo de acuerdo con lo previsto en el artículo 25 de la LCSP y ambas partes quedan sometidas expresamente a la LCSP, y en lo que no se oponga a la misma, al Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, que aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (en adelante, RGLCAP) y restantes disposiciones de desarrollo y, a cualesquiera otras disposiciones que regulen la contratación, a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y que resulten aplicables y, en todo caso, por las condiciones y cláusulas de este pliego y del pliego de prescripciones técnicas objeto de contrato. Supletoriamente regirán las normas generales del derecho administrativo.

2.- En caso de discordancia entre el presente pliego y cualquiera del resto de documentos contractuales, prevalecerá este pliego.

3.- El desconocimiento de las cláusulas del contrato en cualquiera de sus términos, de los otros documentos contractuales que forman parte y de las instrucciones o de la normativa que resulten de aplicación en la ejecución de la cosa pactada, no exime a la adjudicataria de la obligación de cumplirlas.

4.- El órgano de contratación ostenta, de acuerdo con lo previsto en el artículo 190 de la LCSP la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento. Igualmente, podrá modificar unilateralmente los contratos celebrados y acordar su resolución, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP y

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

dituzten ondorioekin.

5.- Kontratua aplikatu edo interpretatzean, gauzatzean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor litezkeen auziak Andoaingo Udaletxeko organo eskudunek erabakiko dituzte, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOk 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Organo horiek hartzen dituzten erabakiak berehala betearazi beharrekoak izango dira.

6.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta horien xedea diru zenbatekoak erreklamatzea, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo administrazio-kontratu baten gauzatzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada, ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero bere eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango du interesdunak, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.

sus disposiciones de desarrollo.

5.- Las cuestiones litigiosas que pudieran surgir para la aplicación o interpretación del contrato, su ejecución, modificación, cumplimiento o resolución, serán resueltas, previa audiencia a la contratista conforme al procedimiento establecido en el artículo 191 de la LCPS y en el artículo 97 del RGLCAP, por los órganos competentes del Ayuntamiento de Andoain y sus acuerdos serán inmediatamente ejecutivos.

6.- En los procedimientos iniciados a solicitud de una persona interesada, para los que no se establezca específicamente otra cosa, y que tengan por objeto o se refieran a la reclamación de cantidades, el ejercicio de prerrogativas administrativas o a cualquier otra cuestión relativa de la ejecución, consumación o extinción de un contrato administrativo, una vez transcurrido el plazo previsto para su resolución sin haberse notificado ésta, la persona interesada podrá considerar desestimada su solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de la subsistencia de la obligación de resolver.

12.- Errekurtsoei buruzko araubidea

Kontratazio organoaren ebazpenen aurka, Herri Administrazioen Administrazioaren Jardunbide Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean edo Sektore Publikoko araubide juridikoan indarrean dagoen erregulazioan nahiz Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

12.- Régimen de recursos

Contra las resoluciones del órgano de contratación se podrán interponer los recursos ordinarios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la regulación vigente del régimen jurídico del sector público, así como en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

II. KAPITULUA – KONTRATAZIOA

CAPÍTULO II – CONTRATACIÓN

13.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio espedientea karatularen hasieran aurreikusitako prozeduraren eta tramitazioaren arabera eramango da aurrera.

Aldaerak onartzen direnean, lizitatzaileek aukerak eskaini ahal izango dituzte, karatulako **13. atalean** ezarritako moduan eta, betiere, ezaugarri tekniko partikularren agirian zehazten diren eta 13. atalean jasotzen diren baldintza, modalitate eta ezaugarriak jasoz.

2.- Espedientearen presazko tramitazioak berekin ekarriko du lizitazio eta esleipenerako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako arauekin bat.

13.- Clase de expediente y forma de licitación

1.- El expediente de contratación se realiza por el procedimiento y la tramitación previstos al inicio de la carátula.

En el supuesto de admisión de variantes, las licitadoras podrán ofertar alternativas en la forma establecida en el **apartado 13** de la carátula y con los requisitos, modalidades y características técnicas fijadas en el pliego de prescripciones técnicas particulares y resumidas en dicho apartado.

2.- La tramitación urgente del expediente implicará la reducción de los plazos establecidos para su licitación y adjudicación, conforme a las reglas establecidas en el artículo 119 y concordantes de la LCSP.

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

14.- Personas naturales o jurídicas licitadoras

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenik eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.

Araudi aplikagarriaren arabera esleitzaileari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa-sistemari edota beste batzuei buruzko baldintza jakin batzuk bete ditzala esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko, prozeduran zehar egiaztatu beharko ditu horiek guztiak.

2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzaileek ez dute izango SPKLk 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratua esleitzeko garaian ere ez die kontratatzeko debekuetako batek berak ere eragin behar.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua esleitzen zaion arte enpresa-elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, haien osaera aldatzen denean eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa kasuetan, SPKLren 69. artikuluaren 8. atalean eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer inguruabar gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoari.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetako enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

15.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak lizitazio elektronikoaren plataformaren bidez aurkeztu beharko dira, www.contratacion.euskadi.eus kontratatzaile profilean argitaratutako iragarkian adierazitako epean.

2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, baldintza-agiri honetako **I. eranskinean**

1.- Podrán contratar con la Administración las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en una prohibición de contratar, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional.

Cuando, por así determinarlo la normativa aplicable, se le requieran a la licitadora determinados requisitos relativos a su organización, destino de sus beneficios, sistema de financiación u otros para poder participar en el correspondiente procedimiento de adjudicación, deberá acreditarlos al concurrir en el mismo.

2.- Las licitadoras no deberán estar incursas en ninguna de las causas de prohibición de contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP en la fecha de conclusión del plazo de presentación de proposiciones. Tampoco deberán estar incursas en tal situación cuando se proceda a la adjudicación del contrato.

3.- Las licitadoras deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que constituyan el objeto del contrato.

4.- Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.

5.- La Administración podrá, igualmente, contratar con uniones de empresas que se constituyan temporalmente al efecto, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor.

En relación con las uniones temporales de empresas, caso de alteración de su composición así como en los supuestos de modificación que se produzcan antes y después de la formalización del contrato, se estará a lo dispuesto en el artículo 69 apartado 8 y siguientes de la LCSP. A estos efectos, se deberá comunicar al órgano de contratación la circunstancia que se hubiere producido.

6.- En relación con las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y empresas no comunitarias será de aplicación lo dispuesto en los artículos 67 y 68 de la LCSP.

15.- Presentación de proposiciones

1.- Las proposiciones se presentarán a través de la plataforma de licitación electrónica www.contratacion.euskadi.eus en el plazo señalado en el anuncio de licitación publicada en el perfil del contratante.

2.- El envío de la documentación, así como las notificaciones y comunicaciones, se ajustarán a lo

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

jasotakoa bete beharko da.

3.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira baldintza-agiri honetako **18. eta 19. klausuletan** adierazitako atalak (BAT eta BI artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentuen edukia).

4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izan daitezen ziurtatzeko.

recogido en el **Anexo I** de este pliego.

3.- Los documentos se nombrarán teniendo en cuenta los distintos apartados señalados en las **cláusulas 18 y 19** de este pliego como contenido documental a incluir en los archivos electrónicos UNO y DOS.

4.- Las proposiciones serán secretas y, para ello, se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de la licitación pública.

16.- Lizitatzaileei informazioa ematea

1.- SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduen eskaintzak aurkezteko finkatutako mugako data baino 6 egun natural lehenago, betiere informazio eskaera mugako data hori baino, gutxienez, 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Aipatutako eskaera lizitazio-iragarkira eta karatulako **1. orrian** jasotako helbide elektronikora zuzendu beharko da.

2.- Baldintza agiriei edo gainerako dokumentazioari buruz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

16.- Información a las licitadoras

1.- Cuando sea preciso proporcionar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138.3 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, a más tardar 6 días naturales antes de la fecha límite fijada para la presentación de ofertas, siempre que dicha solicitud se presente con una antelación mínima de 12 días naturales respecto de aquella fecha. Dicha solicitud se efectuará a la dirección de correo electrónico previsto en el anuncio de licitación y en la 1ª página de la carátula.

2.- En los casos en que las aclaraciones solicitadas respecto de los pliegos o del resto de la documentación se hagan públicas en el correspondiente perfil de contratante, las respuestas tendrán carácter vinculante.

17.- Proposamenen edukia

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren gutun-azal edo artxibo elektronikoetan aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

2.- Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, gutun-azalaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

17.- Contenido de las proposiciones

1.- Las proposiciones se presentarán en los archivos electrónicos que se indican en las cláusulas siguientes, por la licitadora o persona que ostente su representación.

2.- En el interior de cada archivo electrónico se hará constar en hoja o fichero independiente su contenido, enunciado numéricamente (art.80.1 RGLCAP).

18.- BAT zenbakidun artxibo elektronikoa: "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" (BAT zenbakidun artxiboa dagoenean bakarrik)

1.- Karatulako **20. atalean** balio-judizio baten bitartez baloratu beharreko esleipen irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileak BAT zenbakidun gutun-azal edo artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin. Gutun-azal horretan jaso beharko da eskatutako dokumentazioa, hala badagokio, bertan azaltzen den gidoia eta luzera errespetatuz.

2.- Artxibo horretan, dokumentazio hau sartu beharko da: eskaintza egin duen enpresaren ordezkaritza duela

18.- Archivo electrónico nº UNO: "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR" (solo cuando exista el archivo nº UNO)

1.- Si en el **apartado 20** de la carátula se han incluido criterios de adjudicación apreciables mediante juicio de valor que deban ser objeto de evaluación previa, la licitadora deberá aportar un archivo electrónico nº UNO con el título "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR", en el que incluya la documentación allí exigida y, en su caso, de acuerdo al guion que se establezca y a la extensión señalada.

2.- Se incluirá en este archivo declaración responsable del firmante respecto a ostentar la representación de la so-

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena; dagokion kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo, hala badagokio, bete beharreko sailkapena betetzen dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena; jarduera martxan jartzeko beharrezkoak diren baimenak dituela ziurtatzen duen adierazpena; eta kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duena. **VI. eranskin**ean jasotzen da erantzukizunpeko adierazpen horren eredua.

3.- **Portaera-kodea eta engaiamendu etiko betetzeari buruzko adierazpen gehigarria.** Baldintza-agiri honi atxikitako **III. eranskinean** jasotzen den ereduaren arabera egin beharko da adierazpen hori.

4.- Artxibo elektroniko horretan ez da inolaz ere sartuko BI zenbakiko artxibo elektronikoan sartu beharreko dokumenturik.

ciedad que presenta la oferta; a contar con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso, la clasificación correspondiente; a contar con las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad; a no estar incurso en prohibición de contratar alguna. A tales efectos, se incorpora como **Anexo VI** al pliego el modelo de esa declaración responsable.

3.- Declaración del **cumplimiento del código de conducta** y declaración complementaria de **compromiso ético**. Tal declaración deberá ajustarse al modelo que se adjunta en el **Anexo III** al presente pliego.

4.- En ningún caso deberán incluirse en este archivo electrónico documentos propios del archivo electrónico nº DOS.

19.- BI zenbakidun artxibo elektronikoa: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATU BEHARREKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" (artxibo BAKARRA, BAT artxiboa ez dagoenean)

1.- "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.

2.- Proposamenak **V. eranskinean** jasotako eredura egokitu beharko dira, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten ez-egite, akats edo ezabaketarik duen proposamenik. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoetan, partida independente gisa, dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko da.
Eskaintza ekonomikoa eta gutun-azal edo artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa karatulako **20. atalean** adierazten diren irizpideen arabera ebaluatuko dira.

Horrez gain, **VI. eranskinean** honako hauek jasotzen dira:

Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 159.4.c artikuluan jasotako edukiarekin. Enpresa atzerrikoa bada, espainiar foruari men egiteko adierazpena egin beharko du.

Berariazko erantzukizunpeko adierazpena, esleipendun

19.- Archivo electrónico nº DOS: "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS" (Archivo UNICO cuando no existe el archivo UNO)

1.- En este archivo electrónico titulado "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS", se deberán incluir la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas.

2.- Las proposiciones deberán ajustarse al modelo que figura en el **Anexo V**, no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. Las ofertas económicas de las licitadoras deberán indicar, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre Valor Añadido que deba ser repercutido.
Tanto la oferta económica como el resto de documentación contenida en este archivo electrónico serán evaluadas conforme a los criterios expresados en el **apartado 20** de la carátula.

Adicionalmente, **Anexo VI** se incluye:

Declaración responsable con el contenido previsto en el artículo 159.4.c) de la LCSP. Si la empresa fuera extranjera, la declaración incluirá el sometimiento al fuero español.

Declaración expresa responsable indicando el convenio

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

izanez gero kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adieraziz, era berean, kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz behar den informazio guztia emateko betebeharra hartuz.

Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta bestelako gorabeherak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **II. eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, partaide den enpresa-taldeari buruzkoa eta taldeko sozietate guztiak biltzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Adierazpen hori aurkeztu beharko da, baldin eta karatulako **20. atalean** proposamen bat ezohiko moduan baxuegitzat hartzeko parametroak ezartzen badira. Enpresa lizitatzailea ez bada enpresa-talde batekoa, horixe adierazi beharko adierazpenean.

Portaera-kodea eta engaiamendu etiko betetzeari buruzko adierazpen gehigarria. Baldintza-agiri honi atxikitako **III. eranskinean** jasotzen den ereduaren arabera egin beharko da adierazpen hori.

Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena. Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gaininprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzial jo daitezke, horiek hirugarren pertsona edo entitate batzuei zabaltzea lizitatzailearen interes komertzial zilegien kontrakoa izan daitekeenean edo enpresen

colectivo que será de aplicación a los trabajadores y las trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarias, asumiendo así mismo, la obligación de facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios, en su caso. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación constituyendo una unión temporal, deberán aportar un documento privado indicando los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal, caso de resultar adjudicatarias (arts. 69 LCSP y 24 RGLCAP). El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su declaración responsable. En el **Anexo II** de este pliego se incorpora el modelo de compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios.

Declaración expresa responsable de la empresa licitadora relativa al grupo empresarial al que pertenece y comprensiva de todas las sociedades pertenecientes a un mismo grupo, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio. Se aportará siempre y cuando en el **apartado 20** de la carátula se establezcan parámetros para considerar que una proposición es anormalmente baja. En caso de no pertenecer a ningún grupo empresarial, la declaración se realizará en este sentido.

Declaración del cumplimiento del código de conducta y declaración complementaria de compromiso ético. Tal declaración deberá ajustarse al modelo que se adjunta en el **Anexo III** al presente pliego.

Declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial. Las empresas licitadoras tendrán que indicar, si es el caso, qué documentos administrativos y técnicos y datos presentados son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales. Esta circunstancia deberá reflejarse (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su divulgación a terceras personas o entidades pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos o

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae0241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean. Adierazpen hori egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da.

perjudicar la competencia leal entre empresas. De no cumplimentarse esta declaración se presumirá que ningún documento o dato posee dicho carácter.

Karatulako 16.4 atalean azaldutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa. Langile bakoitzaren euskara-gaitasuna egiaztatzeko aurrerago zehazten diren titulu edo ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak. Euskara-gaitasuna agiri bidez egiaztatu gabeko langileek aukera izango dute B2 mailara arteko edo ahozko C1 mailara arteko probak Udaleko Euskara Zerbitzuan egiteko:

1.- Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak arautzen dituen titulu eta ziurtagiriak.
2.- Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan euskara-gaitasuna egiaztatzeari dagokionez ezarritako salbuespenak oro aplikagarri izango dira kasu honetarako ere.
3.- Euskaltegi homologatuetan emandako A1 eta A2 mailetako ziurtagiriak onartuko dira.

4.- La contratista cesante responderá de los salarios impagados al personal afectado por subrogación, así como de las cotizaciones a la Seguridad Social devengadas, aún en el supuesto de que se resuelva el contrato y el personal sea subrogado por la nueva contratista, sin que en ningún caso dicha obligación corresponda a esta última (salvo que la subrogación se haya producido por aplicación del artículo 44 del Estatuto de los trabajadores). A tal efecto, la entidad contratante, una vez acreditada la falta de pago de los citados salarios, procederá a la retención de las cantidades debidas a la contratista para garantizar el pago de los citados salarios, y a la no devolución de la garantía definitiva en tanto no se acredite el abono de éstos.

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

5.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz erakunde kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen bada, ondorio horiek kontratistarengan jasanaraziko dira, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak beretzat gordeko du egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial, harik eta ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

5.- Si a consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquél se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.

36.2.4.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak

1. Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematean, Udalak bere jarduera arautzeko dituen hizkuntza arloko planen arabera jokatuko du eta 1/88 Udal Ordenantzak eta indarrean dauden hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek xedaturikoari jarraiki jardungo du, dagokion guztian.
2. Herritarrekiko harremanetan, ahoz zerbitzua ematen denean, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekin beharko dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraitu beharko du.
   Idatziz, enpresak zerbitzua ematean herritarren esku jartzen dituen ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta gainerako idatzi guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, eta, bigarren kasu horretan, euskarari eman beharko dio lehentasuna.
   Zerbitzuaren hartzaileak euskara ulertzen duten haurrak, gazteak nahiz euskal hiztunak diren kasuetan (ikastetxeetako langileak edo kultur elkarteetako kideak, esaterako), zerbitzua euskaraz eman beharko da.
3. Hizkuntza-paisaiari dagokionez, espazio publikoetan, jendaurrean, jartzen diren kartelak, seinale nahiz oharrek gutxienez euskaraz egon beharko dute. Ele bitan jartzen direnean, euskarari emango zaio lehentasuna.
4. Udalarekiko harremanei dagokienez, enpresak harreman jarraia eta aurrez aurrekoa badu udal langileekin, euskaraz egiteko gaitasuna duen enpresako langile bat izendatu beharko du.
   Enpresa adjudikazio hartzaileak bilera kudeatzeko jartzen duen pertsonak euskaraz egiteko gaitasuna izan behar du. Bileran parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak badira, bilera euskaraz egin beharko da; ulermen maila bermatua dagoenean, nagusiki euskaraz egin beharko da.
   Kontratuan zehar eratzen diren eta Udalari entregatzen zaizkion agiriak, hau da, azterlan, txosten, proiektu, aurrekontu, faktura eta

36.2.4.- Condiciones lingüísticas de ejecución

1. La empresa adjudicataria prestará el servicio de acuerdo con los planes lingüísticos del Ayuntamiento y actuará, en todo aquello que le concierne, conforme a lo establecido por la Ordenanza Municipal 1/88 y los criterios vigentes sobre el uso de las Lenguas Oficiales.
2. En las relacionenes verbales con la ciudadanía, la persona que esté prestando el servicio en la empresa contratista iniciará las conversaciones en euskera y, posteriormente, continuará en el idioma elegido por la persona usuaria.
   En las relaciones por escrito, a la hora de prestar el servicio, la empresa difundirá en euskera o en euskera y castellano todos los certificados, tarjetas, notas y demás escritos para la ciudadanía. En el caso de utilizar ambas lenguas, dará prioridad al euskera.
   Cuando el público objetivo sea la infancia, la juventud o público euskaldun, como personal de centros escolares o miembros de asociaciones culturales, el servicio se prestará en euskera.
3. En cuanto al paisaje lingüísticoa, los carteles, señales o notas expuestas en el espacio público estarán, al menos, en euskera. Cuando se escriban en ambas lenguas, se dará prioridad al euskera.
4. En cuanto a las relaciones con el Ayuntamiento, si la empresa mantiene una relación continua y directa con el personal del Ayuntamiento, la empresa designará a personal con capacidad para expresarse en euskera.
   La persona a la que la empresa adjudicataria asigne la gestión de la reunión tendrá capacidad para expresarse en euskera. Si todos los miembros que participan en la reunión son euskaldunes, la reunión se realizará en euskera; cuando el nivel de comprensión esté garantizado, se realizará principalmente en euskera.
   Los documentos qu ese constituyan durante el contrato y qu ese entreguen al Ayuntamiento, se decir estudios, informes, proyectos, presupuestos,

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

bestelako agiriak, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira

5. Behin kontratazioa eginda enpresa esleipendunak euskara-gaitasun maila egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak egiaztatu egin beharko du dagokion hizkuntza-gaitasuna.

facturas y otros documentos, se elaborarán en euskera o en las dos lenguas oficiales.

5. Si después de efectuar la contratación la empresa adjudicataria sustituyese a alguna de las personas empleadas con competencia en euskera acreditada, la persona que ocupe su plaza deberá acreditar la competencia lingüística oportuna

36.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko baldintzak

1.- Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; lanaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, xedatutako moduan.

2.- Enpresa esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabili beharko du kontratu hau gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

3.- Hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan, enpresa edo entitate esleipendunak bermatu behar du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla.

36.2.5.- Condiciones en materia de igualdad de mujeres y hombres

1.- La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

2.- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

3.- La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo en aquellos contratos cuya ejecución requiera más de diez personas trabajadoras.

36.2.6.- Azpikontratazio kasuetako baldintzak

1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a).- Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi behar dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa, zerbitzuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratistak nortzuk diren zehaztuz. Horrez gain, azpikontratisten izena, harremanetarako datuak eta lege ordezkariak zeintzuk diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratistek kontratua gauzatzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, baita Administrazioarekin kontratatzeko debeku egoeran ez daudela ere.

36.2.6.- Condiciones en supuestos de subcontratación

1.- La celebración de los subcontratos estará sometida al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a).- La adjudicataria deberá comunicar al órgano de contratación por escrito, tras la adjudicación del contrato y a más tardar cuando inicie la ejecución, la intención de celebrar subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representantes legales de las subcontratistas, junto con la documentación que justifique la aptitud de las subcontratistas para ejecutar las partes de la prestación que se pretenden subcontratar, y acreditando que no se encuentran incursas en prohibición de contratar con la Administración.

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

Azpikontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunezko aitorpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

Azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan zehaztutakoarekin, bai eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako, edo eskaintzan adierazitako profil profesionalaren araberakoak ez direlako, ezin izango dira egin, jakinarazpena bidali eta gaitasunari nahiz kaudimenari buruzko egiaztagiriak aurkezten direnetik 20 egun igaro arte, non eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta Administrazioak ez badu, epe horren barne, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, eskaintzan, lanbide profila deskribatuz identifikatu badira azpikontratistak.

b).- 20 eguneko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

c).- Isilpeko kontratuetan edo izaera erreserbatukoetan, edo segurtasun neurri bereziez babestuta gauzatu beharrekoetan, lege nahiz araudien arabera, edo estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatzen duenean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio-organoaren baimen espresua beharko da beti.

2.- Karatulako **18. atalean** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- Kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira azpikontratistak, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko baititu baldintza administrazio berezien agiria eta kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak nahiz ingurumen arlokoak barne.

Enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun

A los efectos de acreditar que la empresa subcontratista propuesta no está incursa en las inhabilitaciones y prohibiciones para contratar previstas en el artículo 71 de la LCSP, la empresa contratista aportará obligatoriamente junto con la documentación indicada en el apartado anterior una declaración responsable suscrita por la subcontratista en este sentido.

Los subcontratos que no se ajusten a lo indicado en la oferta, por celebrarse con empresas distintas de las indicadas nominativamente en la misma o por referirse a partes de la prestación diferentes a las señaladas en ella, no podrán celebrarse hasta que transcurran 20 días naturales desde que se hubiese cursado la notificación y aportado las justificaciones de aptitud de la subcontratista para ejecutarla, con referencia a los elementos técnicos y humanos de que dispone y su experiencia, salvo que con anterioridad hubiesen sido autorizados expresamente, siempre que la Administración no hubiese notificado dentro de este plazo su oposición a los mismos. Este régimen será igualmente aplicable si las subcontratistas hubiesen sido identificadas en la oferta mediante la descripción de su perfil profesional.

b).- Bajo la responsabilidad de la empresa contratista, los subcontratos podrán concluirse sin necesidad de dejar transcurrir el plazo de 20 días naturales si su celebración es necesaria para atender a una situación de emergencia o que exija la adopción de medidas urgentes y así se justifica y comunica suficientemente.

c).- En los contratos de carácter secreto o reservado, o en aquellos cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales de acuerdo con disposiciones legales o reglamentarias o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad de la Administración, la subcontratación requerirá siempre autorización expresa del órgano de contratación.

2.- Las tareas críticas que se indican en el **apartado 18** de la carátula no pueden ser objeto de subcontratación, debiendo ser ejecutadas directamente por la contratista principal.

3.- Las subcontratistas quedarán obligadas sólo ante la empresa contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, con arreglo estricto a los pliegos de condiciones particulares y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral.

El conocimiento que tenga la Administración de los

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

esklusiboa ez da ezertan aldatuko, nahiz eta aurreko 1. atalaren a) eta b) letretan adierazitako komunikazioen bidez egin diren azpikontratuen berri izan Administrazioak edo c) letran ezarritako kasuan adierazitako baimena izanda ere.

4.- Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari buruzko informazioa eman beharko dio langileen ordezkaritzari, lan legerian xedatutakoaren arabera.

6.- Enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratua islatuko den dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio-organoaren aurrean. Bertan, enpresa edo entitate azpikontratistaren betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan, eta haiek ez betetzeak sortzen dituen ondorioak ere zehaztu beharko dira.

7.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionean, SPKLren 216. artikulua bete beharko da, baita abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza eragiketetako berankortasunaren arauko neurriak ezartzen dituena, aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa ere.

8.- Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz bete dituen egiaztatu ahal izango du Administrazioak.

Horretarako, Administrazioak hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko dio kontratistak, xehetasun guztiekin, haien parte hartzea gauzatzen denean; bertan, bakoitzaren azpikontratazio edo hornikuntza baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordainketaren epearekin zerikusi zuzena dutenean.

Halaber, Administrazioari frogagiri bat aurkeztuko dio, horrek hala eskatuz gero, SPKLren Testu Bateratuko 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutako ordainketa epeak bete direla adierazten duena, betiere behin prestazioa amaituta.

36.2.7. Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak

1.- Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu,

subcontratos celebrados en virtud de las comunicaciones a que se refieren las letras a) y b) del apartado 1 anterior, o la autorización que otorgue en el supuesto previsto en la letra c) de dicho apartado, no alterarán la responsabilidad exclusiva de la empresa contratista principal.

4.- En ningún caso podrá concertarse por la empresa contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico, o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71 de la LCSP.

5.- La empresa contratista deberá informar a la representación del personal de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

6.- La empresa o entidad adjudicataria deberá presentar ante el órgano de contratación el documento en el que se plasmará el subcontrato, que deberá establecer las obligaciones de la empresa o entidad subcontratista con relación a las cláusulas previstas en el presente contrato y las consecuencias de su incumplimiento.

7.- El pago a subcontratistas deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP y en la Disposición Transitoria tercera de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

8.- La Administración podrá comprobar el estricto cumplimiento de los pagos que la contratista haya de realizar a los subcontratistas o suministradores que participen en el contrato.

Para ello, la contratista remitirá a la Administración, cuando esta lo solicite, una relación detallada de las subcontratistas o suministradoras que participen en el contrato cuando se perfeccione su participación, junto con las condiciones de subcontratación o suministro de cada una de ellas que guarden una relación directa con el plazo de pago.

Asimismo, aportará a la Administración, cuando ésta lo solicite, un justificante del cumplimiento de los plazos de pago establecidos en el artículo 216 de la LCSP y en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, una vez terminada la prestación.

36.2.7.- Condiciones en materia de seguridad y salud en el trabajo

1.- La empresa contratista deberá cumplir con las disposiciones vigentes en materia de seguridad y prevención de riesgos laborales en el trabajo, así como las derivadas del convenio colectivo aplicable.

2.- La empresa contratista deberá adoptar las medidas de seguridad e higiene en el trabajo que sean obligatorias

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

kontratu honen xedeari lotuta dauden langileen osotasunarentzat edo osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

3.- Zerbitzu kontratuaren xedearen izaera dela eta, kontratistaren langileek administrazio kontratatzailearen zentroetan zerbitzuren bat emateko esku hartu behar badute (edo, azpikontratistarenek, halakorik badago), eta lantoki horietan Administrazioaren langile propioek ere lan egiten badute, esku-hartzeari ekin baino lehen, horretan lan egingo duten enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jarduerek sor ditzaketen berariazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek jardueran parte hartzen duten beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldiberekotasunagatik sortzen diren arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

Kasu horietan, jarduerari ekin baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez:

a).- Kudeaketa prebentiboko dokumentua, baita hartu beharreko prebentzio neurriak ere.

b).- Egin beharreko lanen prebentzio jardueren plangintza.

c).- Jaso izanaren agiria, kontratistak sinatuta, baita azpikontratistak sinatuta ere, halakorik badago, egiaztatzeko administrazio kontratatzailearen eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuei buruzko dokumentazioa jaso dela, baita arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriei eta jarraibideei buruzkoa eta larrialdi egoeretan aplikatu beharreko neurriei buruzkoa ere.

d).- Aplikatutako prebentzio antolakuntzaren modalitatea. Hirugarren prebentzio zerbitzu bat aplikatzen bada, Prebentzio Zerbitzuarekin egindako kontratuaren kopia bat aurkeztu beharko da, hiru espezialitate hauekin: Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua, eta, gainera, Osasunaren Zaintza; eta prebentzio zerbitzu hori indarrean dagoela egiaztatzen duen ordainagiri edo ziurtagiria.

e).- Kontratua eta horren xedea betetzeko makineria exekutatuko dituzten langileen zerrenda.

f).- Kontratuaren gauzapenera atxikitako langileek kontratuko lanak egiteko mediku-egokitasunari buruzko egiaztagiriak.

g).- Kontratua gauzatuko duten langileek prebentzio esparruan jaso duten prestakuntzaren eta

o necesarias para prevenir de manera rigurosa los riesgos que pueden afectar a la integridad y salud del personal afecto al objeto del contrato.

3.- Cuando la naturaleza del objeto del contrato requiera la intervención de personal de la contratista (o en su caso, de la subcontratista) que deban realizar alguna prestación en centros de la Administración contratante en los que también preste servicios el personal de la propia administración, antes del inicio de la actividad, todas las empresas y personal autónomo concurrentes deberán cooperar entre sí e intercambiarse información sobre los riesgos específicos de las actividades que desarrollarán y que puedan afectar al personal. Las empresas informarán a su personal respectivo de los riesgos derivados de la concurrencia de actividades, y establecerán los medios de coordinación necesarios y pertinentes. A tal efecto, la información recibida se tendrá en cuenta en la evaluación de riesgos laborales y en la planificación de las actividades preventivas correspondiente.

En estos casos, antes del inicio de la actividad, en cumplimiento del RD 171/2004, de 30 de enero, sobre coordinación de actividades empresariales, se deberá aportar la siguiente documentación:

a).- El documento de gestión preventiva, así como las medidas preventivas a adoptar.

b).- La planificación de la actividad preventiva de los trabajos a realizar.

c).- Acuse de recibo firmado por la contratista y, en su caso, subcontratista, acreditativo de que han recibido del Ayuntamiento de Andoain la documentación sobre los riesgos propios del centro de trabajo y de sus instalaciones, sobre las medidas preventivas e instrucciones para la prevención de dichos riesgos, y las que se deben de aplicar en caso de situaciones de emergencia.

d).- La modalidad de organización preventiva adoptada. En caso de servicio de prevención ajeno, se deberá adjuntar copia del contrato con el servicio de prevención con las tres especialidades de Seguridad, Higiene, Ergonomía y Psicosociología aplicada y además la Vigilancia de la Salud; y recibo de pago o certificado en el que se refleje que actualmente está en vigor.

e).- Relación del personal que ejecutará el contrato y maquinaria destinada al objeto del contrato.

f).- Justificantes de aptitud médica para el desempeño de los trabajos contratados del personal adscrito a la ejecución del contrato.

g).- Justificante de la formación e información dada en materia preventiva a las personas trabajadoras que

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

informazioaren frogagiria; horren barne egon beharko dira lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuen inguruan jasotako informazioa, arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriak eta jarraibideak eta larrialdi kasuetan aplikatu beharrekoak.

h).- Kasu bakoitzean beharrezkoak diren babes ekipamendu indibidualen entregaren frogagiria.

i).- Enpresak bere makineria edo lanerako ekipamenduak erabiltzen baditu, adostasun deklarazioa, CE markak edo 1997ko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura, langileek lan tresneria erabiltzerakoan segurtasun eta osasun arloetan errespetatu beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenera egokitzeko dokumentazioa eta horiek erabiltzeko eskuliburua. Halaber, tresna horiek erabili behar dituzten langileek horretarako berariazko prestakuntza jaso duela eta horiek erabiltzeko baimenduta daudela adierazten duen ziurtagiria.

j).- Produktu kimikoen segurtasun fitxak, enpresa kontratistak edo azpikontratistak produktu kimikorik erabili behar badu.

k).- Segurtasun eta osasuneko arauak betetzen direla bermatuko duen pertsonaren izena; baita administrazio kontratatzailearen langileak koordinatzeko bitartekoak ere. Horrez gain, dagozkion prebentzio baliabideak eskuragarri jartzea, baldin eta horrelakorik beharrezkoa bada.

ejecutarán el contrato; incluyendo la información recibida sobre los riesgos propios del centro de trabajo y de sus instalaciones, las medidas preventivas e instrucciones para la prevención de dichos riesgos, y las que se deben de aplicar en casos de emergencia.

h).- Justificante de la entrega de los equipos de protección individual (EPI´s) que sean necesarios.

i).- Si la empresa aporta su propia maquinaria y equipos de trabajo declaración de conformidad, marcado CE o documento de adecuación al Real Decreto 1215/1997, de 18 de julio, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud para la utilización por los trabajadores de los equipos de trabajo y libro de instrucciones para su utilización. Asimismo, certificado que acredite que el personal que deba utilizarlos ha recibido formación específica y se encuentra autorizado para su uso.

j).- Las fichas de seguridad de productos químicos cuando la empresa contratista o subcontratista deba aportar productos químicos.

k).- Dar a conocer la identidad de la persona que deberá garantizar el cumplimiento de las normas de seguridad y salud y establecer los medios de coordinación con el personal de la Administración contratante. Así como, la puesta a disposición de los recursos preventivos pertinentes cuando sean necesarios.

Enpresa kontratistak beste enpresa bat azpikontratatzen badu kontratuaren xedearen atal bat egiteko, enpresa kontratistak aurreko atalean zehaztutako egiaztapenak eskatu beharko dizkio azpikontratistari (autonomoei), hain zuzen ere enpresa kontratistak administrazio kontratatzailearen aurrean aurkezteko.

Bereziki bermatu beharko da enpresa azpikontratistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebehar guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen dela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean egiteko azpiegitura eta baliabide nahikoa dituela enpresa azpikontratatuak.

Entitate kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpikontratistek lanen arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzen dutela. Horretarako beharrezkoa den edozein neurri hartu ahal izango du.

Cuando la empresa contratista subcontrate con otra empresa la realización de parte del objeto del contrato, las acreditaciones previstas en esta cláusula deberán ser exigidas a la empresa subcontratista (autónomos/as) por la empresa contratista para su entrega a la Administración contratante.

Especialmente, debe velar para que la empresa subcontratista cumpla todas las obligaciones en materia de seguridad y salud laboral y concretamente, que cumple lo que prevé la normativa en cuanto a la coordinación de actividades preventivas y puesta a disposición de los recursos preventivos cuando sean necesarios.

La empresa contratista deberá garantizar que la subcontratada dispone de infraestructura y medios adecuados para llevar a cabo la actividad y ejercer directamente la dirección de los trabajos.

La entidad contratante vigilará el cumplimiento por los contratistas y subcontratistas de la normativa de prevención de riesgos laborales para lo cual podrá adoptar cualquier medida acorde con dicha finalidad.

4.- Zerbitzu kontratuaren xedearen izaera dela eta,

4.- Cuando la naturaleza del objeto del contrato de

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

kontratistaren (edo, hala badagokio, azpikontratistaren) langileek entitate kontratatzailearen lantokiren batean zerbitzua eman behar badute eta bertan kontratatzailearen langileek zerbitzurik ematen ez badute, ezingo da kontratuaren xede den jarduera abian jarri, baldin eta aldez aurretik administrazio kontratatzaileak jarduera hauek egin ez baditu:

a).- Jardueran parte hartzen duten enpresei lantokiko arriskuen berri ematea, hain zuzen ere bertan garatu beharreko jardueretan eragina izan dezaketena, baita arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien berri ematea ere.

b).- Enpresa kontratistari larrialdietarako neurrien berri ematea.

Lantoki horretan, enpresa bat baino gehiagoko langileek lan egin behar badute, jarduera abian jarri baino lehen, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, enpresa eta langile autonomo guztiek elkarlanean jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jardueren berariazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldiberekotasunagatik sortzen diren arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

Jarduera abian jarri baino lehen, kontratistak eta, halakorik badago, azpikontratistak aurkeztu beharko dute administrazio kontratatzailearen eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berariazko arriskuen, jarduerei eragin diezaieketen lantokiko arriskuen eta arrisku horien prebentzioko eta larrialdi kasuetarako neurrien inguruko dokumentazioa jaso izanaren agiri sinatua.

5.- Baldin eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak kontratuari atxikita dituen langileek ez badute zerbitzurik ematen entitate kontratatzailearen lantokietan, baina haren makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabiltzen baditu, jarduera hasi aurretik, Administrazioak enpresa kontratistari edo azpikontratistari emango dio haren makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabili eta manipulatzeko beharrezkoa den informazioa eta, aldi berean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak dokumentuz frogatu beharko du, jarduera hasi aurretik, kontratua betetzen duten langileek izan badutela administrazio kontratatzaileak

servicios requiera que el personal de la contratista (o en su caso, de la subcontratista) tenga que realizar alguna prestación en centros de la entidad contratante sin que en los mismos preste servicios su personal, no se podrá iniciar la actividad objeto del contrato si previamente la Administración contratante no ha llevado a cabo las siguientes actuaciones:

a).- Informar a las empresas concurrentes de los riesgos del lugar de trabajo que puedan afectar a las actividades desarrolladas, así como de las medidas preventivas de tales riesgos.

b).- Informar sobre las medidas de emergencia a la empresa contratista.

Cuando en dicho centro de trabajo vaya a concurrir personal de más de una empresa, antes del inicio de la actividad, en cumplimiento del RD 171/2004, de 30 de enero, sobre coordinación de actividades empresariales, todas las empresas y personal autónomo concurrentes deberán cooperar entre sí e intercambiarse información sobre los riesgos específicos de las actividades que desarrollarán y que puedan afectar al personal de las otras empresas concurrentes. Las empresas informarán a su personal respectivo de los riesgos derivados de la concurrencia de actividades, y establecerán los medios de coordinación necesarios y pertinentes. A tal efecto, la información recibida se tendrá en cuenta en la evaluación de riesgos laborales y en la planificación de las actividades preventivas correspondientes.

Antes del inicio de la actividad, la contratista y, en su caso, subcontratista deberán aportar el acuse de recibo firmado acreditativo de que han recibido de la Administración contratante la documentación sobre los riesgos propios del centro de trabajo y de sus instalaciones, sobre los riesgos del lugar de trabajo que puedan afectar a las actividades desarrolladas, así como de las medidas preventivas de tales riesgos y de emergencia.

5.- Si el personal de la contratista (en su caso, de la subcontratista) adscrito al contrato no presta servicios en los centros de la entidad contratante pero utiliza su maquinaria, equipos, productos, materias primas o útiles, antes del inicio de la actividad, la Administración proporcionará a la empresa contratista o subcontratista la información necesaria para la utilización y manipulación de la maquinaria, equipos, productos químicos, materias primas o útiles y, a su vez, la empresa contratista o subcontratista, antes del inicio de la actividad deberá acreditar documentalmente que el personal que ejecutará el contrato dispone de la información y formación necesaria para la utilización y manipulación de la maquinaria, equipos, productos

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

emandako makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabili eta manipulatzeko beharrezkoa den informazioa eta formazioa eta, gainera, hark emandako informazioa ezagutzen duela.

6.- Baldin eta, enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

36.2.8.- Enpresa kontratistako langileei buruzko baldintzak

1.- Enpresa kontratistari berari eta ez beste inori egokituko zaio baldintza agirietan jasotako titulazio eta esperientzia (titulazio eta esperientziari buruzko berariazko baldintzak jarriz gero) bete eta kontratuaren betetzeari atxikitako lantaldean sartuko diren langileak. Halere, horrek ez du kenduko kontratazio-organoak baldintza horiek betetzen direla ziurtatzea.

2.- Enpresa kontratista saiatuko da lantaldea egonkorra izaten eta, halakorik izatekotan, haren osaeraren aldaketak puntualak eta justifikatuak izaten, zerbitzua behar bezala emate aldera (exijentzia hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean). Kasu guztietan, aldaketen berri eman beharko zaio kontratazio-organoari, Klausula Partikularren Baldintza Agirian jasotakoaren arabera.

3.- Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du, bere langileei dagokienez, modu egiazkoan, eraginkorrean eta jarraian enpresari guztiei dagokien zuzendaritza-boterea erabiltzeko. Horregatik, bada, eginkizun hauek hartzen ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; laneko arriskuak ekiditeko lege betebeharrak betetzea; beharrezko gertatuz gero, diziplinazko zigorrak ezartzea; Gizarte Segurantzako xedapenak eta, bereziki, kotizazioak eta prestazioak ordaintzeari dagozkionak betetzea; eta, oro har, enplegatzailearen eta langileen arteko kontratu harremanetik datozen gainerako eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

4.- Enpresa kontratistak bermatuko du, batez ere, kontratuaren gauzapenari atxikitako langileek beren jarduera gauzatuko dutela beraien eginkizunen muga gainditu gabe, betiere kontuan hartuta kontratuaren xede diren baldintza agiriek mugatutako jarduera.

5.- Enpresa kontratistak gutxienez pertsona bat izendatu

químicos, materias primas o útiles facilitados por la Administración contratante y que conoce la información facilitada por la misma.

6.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista o subcontratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada al pago de cantidades, se repercutirá en la contratista la suma satisfecha, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades pagadas.

36.2.8.- Condiciones respecto del personal de la empresa contratista

1.- Corresponderá exclusivamente a la empresa contratista la selección del personal que, reuniendo los requisitos de titulación y experiencia exigidos en los pliegos (en los casos en que se establezcan requisitos específicos de titulación y experiencia) formará parte del equipo de trabajo adscrito a la ejecución del contrato, sin perjuicio de la verificación por parte del órgano de contratación del cumplimiento de aquellos requisitos.

2.- La empresa contratista procurará que exista estabilidad en el equipo de trabajo, y que las variaciones en su composición sean puntuales y obedezcan a razones justificadas, en orden a no alterar el buen funcionamiento del servicio (cuando existan razones que justifiquen esta exigencia), informando en todo momento al órgano de contratación en los términos fijados en el PCAP.

3.- La empresa contratista adquiere el compromiso de ejercer de modo real, efectivo y continuo el poder de dirección inherente a todo/a empresario/a, en relación con su personal, asumiendo la negociación, pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, sustituciones, obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, imposición, cuando proceda, de sanciones disciplinarias, y cuantos efectos de seguridad social se deriven, en particular el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, y en general todos los derechos y obligaciones que se deriven de la relación contractual entre la empresa empleadora y su personal.

4.- La empresa contratista velará especialmente porque el personal adscrito a la ejecución del contrato desarrolle su actividad sin extralimitarse en las funciones desempeñadas respecto de la actividad delimitada en los pliegos como objeto del contrato.

5.- La empresa contratista, deberá designar al menos una persona que se responsabilizará de la coordinación

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

beharko du, bere enpresako langileen artetik, koordinazio teknikoaz arduratzeko. Eginkizun hauek beteko ditu pertsona horrek:

a).- Solaskidea izatea bere enpresaren eta entitate kontratatzailearen artean. Horretarako, komunikazioa bideratuko du enpresaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen artean, batetik, eta administrazio kontratatzailearekin, bestetik, betiere kontratua betetzeari lotutako alderdiei dagokienez.

b).- Lan zereginak kontratua betetzeaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratupeko zerbitzuaren prestazioari dagokionez beharrezkoak diren laneko agindu eta jarraibideak ematea.

c).- Lantaldeko langileek beraiei agindutako eginkizunak betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lantokira joaten direla kontrolatzea.

d).- Kontratuaren gauzatzeari atxikitako langileen oporrak antolatzea. Horretarako, behar bezala koordinatu behar dira enpresa kontratista eta administrazio kontratatzailea, zerbitzuaren martxa egokia eten ez dadin.

e).- Entitate kontratatzailea informatzea kontratuaren gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeraren aldaketen inguruan, behin-behinekoak izan edo iraunkorrak izan, 37.2.2 klausulan jasotakoaren arabera.

6.- Enpresa kontratistak bere dependentzia edo instalazioetan bete beharko du kontratua, salbu eta baldintza agirian aurreikusita badago zerbitzuak entitate kontratatzailearen dependentzietan ematea eta espresuki hala baimen bada. Kasu horretan, administrazio kontratatzaileak langile publikoen languneez besteko eremuak jarriko ditu enpresa kontratistaren esku. Enpresa kontratistak zainduko du bere langileek zerbitzu horiek berari emandako kokalekuan ematen dituztela.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

técnica, perteneciente a la plantilla de su empresa, que tendrá entre sus funciones las siguientes:

a).- Actuar como persona interlocutora entre su empresa y la entidad contratante, canalizando la comunicación entre aquella y el personal integrante del equipo de trabajo adscrito al contrato, de un lado, y la Administración contratante, de otro , en todo lo relativo a las cuestiones derivadas de la ejecución del contrato.

b).- Distribuir el trabajo entre el personal encargado de la ejecución del contrato, e impartirle las órdenes e instrucciones de trabajo que sean necesarias en relación con la prestación del servicio contratado.

c).- Supervisar el correcto desempeño por parte del personal integrante del equipo de trabajo de las funciones que tiene encomendadas, así como controlar la asistencia de dicho personal al puesto de trabajo.

d).- Organizar el régimen de vacaciones del personal adscrito a la ejecución del contrato, debiendo, a tal efecto, coordinarse adecuadamente la empresa contratista con la Administración contratante para no alterar el buen funcionamiento del servicio.

e).- Informar a la entidad contratante acerca de las variaciones, ocasionales o permanentes, en la composición del equipo de trabajo adscrito a la ejecución del contrato, en los términos recogidos en la cláusula 36.2.2.

6.- La empresa contratista estará obligada a ejecutar el contrato en sus propias dependencias o instalaciones, salvo que la necesidad de prestar los servicios en dependencias de la entidad contratante estuviera prevista en el pliego, y así se hubiera autorizado expresamente. En este caso, la Administración contratante pondrá a disposición de la empresa contratista espacios de trabajo diferenciados de los que ocupa el personal empleado público, correspondiendo a la empresa contratista velar por el respeto por parte de su personal a prestar tales servicios en la ubicación asignada.

7.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada al pago de cantidades, se repercutirá en ésta la suma satisfecha, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades pagadas.

36.2.9.- Informazioaren segurtasunaren esparruko

36.2.9.- Condiciones en materia de seguridad de la

ESKU0b2f3071-da10-4f43-8bea-7bf93dae9241

baldintzak

1.- Informazioaren segurtasunari buruzko legedia bete beharko du esleipendunak, era berean araudi horren inguruko informazioa eta prestakuntza eman beharko die bere langileei (legeak zehaztutako mailan).

2.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira entitate kontratatzailearekin duen harremana amaituta ere.

3.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da; baita entitate kontratatzaileak xedatutakoa betez ere.

4.- Esleipendunak ezingo dizkie laga datu horiek hirugarrenei edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.

5.- Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neurri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea –giza jardueraren ondorioz edo ingurune fisiko edo naturalaren ondorioz– saihesteko.

6.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

7.- Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari.

8.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

información

1.- La adjudicataria se obliga a cumplir con la normativa de seguridad de la información; así como se obliga a informar y formar a su personal (nivel exigido por la legislación).

2.- La adjudicataria, y toda persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos de carácter personal, está obligada al secreto profesional respecto de los mismos y al deber de guardarlos; obligaciones que subsistirán aun después de finalizar sus relaciones con la entidad contratante.

3.- La utilización por la adjudicataria de datos de carácter personal que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal; así como con arreglo a las instrucciones que le indique la entidad contratante.

4.- La adjudicataria no podrá facilitar estos datos a terceros ni utilizarlos con finalidades distintas a las precisas para el cumplimiento del contrato.

